

MUko ikastetxe nagusiko ikasle-trukea

2010/12/23

Mondragon Unibertsitateko Biteri Ikastetxe Nagusiko Goi Eskola Politeknikoko eta Huheziko hogeit hamar ikasle truke esperientzia bati esker Granadako Unibertsitatea bisitatu dute.

Ekimena Biteriko ikasle talde batena izan zen, beste Ikastetxe batzuetako ikasleekin esperientzia berriak trukatzeko ideia sustatu zuten. Horrela, lau egunetan Granadako Santa Cruz la Real Ikastetxe Nagusiko ikasleekin egon dira. Bi Ikastetxe Nagusietako errealitateak kontrastatzeko aukera izan dute eta bide batez, Granada eta inguruan bisita kulturala egin dute: katedrala, Alhambra, Albaicin auzoa, Sacromonte, Granadako gaua,...

Cruz la Real Ikastetxe Nagusiaren eta Biteri Ikastetxe Nagusiaren arteko senidetzeak, truke esperientzia berriei atek zabaltzen dizkie.



BIN Granadan